



MUSIKA

Kilate askoko ahotsa



OLBE

MONTERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Egia esan, gaizki ohitzen ari gara OLBEk ekartzen dituen nazioarteko panorama operistikoko figura apartekin. Publikoa, berez zorrotza, aseezin bihurtuko da horrela eta ez du azken aldian entzuten ari garena baino boltaje gutxiagoko ahotsik onartuko.

Sonya Yoncheva *OLBE on stage* zikloaren barruan eskainitako emanaldia oso goxoa izan zen, aurrekoak bezala. Laburregia agian, baina nahikoa irauin zuen harmoniko ederrez beteriko ahotsa preziatzeko, erregistro guztietan oso orekatua eta dotorea.

Abeslari bulgariarra Frantziako erreperitorioarekin hasi zen, Massenet-en *Hérodiade* eta *Thaïs* operen ariekin hain zuzen ere, zeintzuetan hizkuntza men-deratzen zuela erakutsi zuen. Frantse-

sez, bokalizazioak bikaina izan behar du, hizkuntzaren sonoritate berezia ahalik eta gehien zaintzeko, eta horretan, Yonchevak ez zuen arazorik izan.

Matizazio gaitasuna Txaikovskyren *Iolanta*-ren aria batekin frogatua geratu zen, eta batez ere, Dvoráken *Rusalka* operaren *Ilargirako kanta* ederrarekin.

Dena den, batez ere italiar erreper-
torioan agertu ziren distira osoz soprano honen teknika izugarria eta arnaske-
taren kontrol bikaina. Abesti horietan bere ahots boteretsuaren ñabarduren aberastasunaz gozatu ahal izan genuen. Puccini oso konpositore egokia da bere ahotsarentzat eta *Le Villi* operaren *Se come voi piccina*-n, *La Bohème*-ren *Donde lieta uscia*-n eta *Madama Butterfly*-ren *Un bel di vedremo*-n pertsonaien ba-

OLBE-K ANTOLATUTAKO ERREZITALDIA

SONYA YONCHEVA (SOPRANO).
ANTOINE PALLOC (PIANO).
EGITARAUA: MASSENET,
CHOPIN, TXAIKOVSKY, DVORÁK,
PUCCINI ETA BIZET-EN LANAK.

EUSKALDUNA JAUREGIA,
BILBO, MAIATZAK 15

rruan sartzeko gaitasuna erakutsi zuen.

Programari amaiera emateko Fran-
tziara itzuli zen: Massenet-en *Manon*
operaren *Adieu à notre petite table* eta
Bizet-en *Carmen*-en *Habanera* abestu zi-
tuen. Ondo merezitako txalo zaparrada
jaso zuen.

Antoine Palloc piano-jotzailearekin
batera aritu zen Yoncheva. Trebetasun
osoz aritu zen laguntzaile lanetan, baina
ez hainbeste abeslariari atsedean emate-
ko bakarlari gisa pieza batzuk interpre-
tatu zituenean. Halere, musikari eragin-
korra da Palloc pianista, dudarik gabe.

Yonchevak bis pare bat oparitu ziz-
kigun: zarzuela pieza bat *grazia* handiz
eta Pucciniren *Gianni Schicchi* operako
O mio babbino caro aria ospetsua. Zora-
garria. ●